

Setien, euskal gotzaina Gipuzkoan

JOSEBA EGIBAR

EAJ-PNVKO GIPUZKO BURU
BATZARREKO PRESIDENTEA

Jose Maria Setienen heriotzan bururatzen zaidan lehen gauza da gotzain bizi-tzan Gipuzkoari eta Euskal Herriari utzitako arrastoa. Vatikanon II.eko gizona, tokiko eliza eta gotzain izatea banaezinak ageri dira beragan. Setien Gipuzkoan erro-tzen eta gure herriko erreallitateari erantzun zion.

Politikako egoera eta gertaerei buruzko pastoral idazkiak eta adierazpenak hartuta, ez dago zalantzarik: aberatsa, ugaria eta sendoa da bere ondarea. Nire iritziz, Euskadiko bakegintzarako eta gizarte-gintzarako etika giltzatu duen erreferentetako bat dugu Setien. Nire esperientziaren arabera, politikaren autonomia kontu handiz errespetatu zuen, bere arlotik arituz, Elizaren ikuspegitik eta doktrina sozialetik. Entzuten zekien eta ahal zuen laguntza emateko prest egoten zen, bere askatasun eta nortasun handi harekin.

Setien ez zen gizon ximplea. Errealitate konplexuaren korapilo ugariak aztertzekeo kapaz zen. Ez zen mugatu indarkeria gaitzestera; zuztarrera jo zuen: giza duintasuna lehenestera eta giza eskubideak, ahotsa altxatuz bai ETaren bai GALen aurrean, berdin Zuzenbide Estatuan onartezinak diren torturen aurrean. Arazo etikoari erantzun etikoa, eta arazo politikoari konponbide politikoa. ETaren desagitea izan berria dugun honetan, gaurkotasun handia dute duela 30 urte berak idatzitako hitzek: «Euskadiren bakegintzaren arazoari egiaz heldu nahi badiogu, erreduktionismo bikoitz hau saihestu behar dugu: bakearen arazoa ez da huts-hutsik politikoa, eta arazo politikoa ere ez da soil-soilik ETaren indarkeriaren arazoa. Euskal Herriaren normalizazioa ez da izango ETA, bere ekintzak eta estrategiak desagitearen ondorio hutsa. Beharrezkoa da, gainera, bidea egi-

tea, oraingoz erabat finkatu gabe dagoena baina Euskal Herriaren borondate politikoarekin bat datorrena, bide horretan barrena herri hau eten gabe bere buruaren jabe eginez joan dadin, herriak bera izateko eta erakunde egokiak eratzeko duen eskubidearen arabera, bere borondatea gauzatzeko eta bereziko erreallitate politiko gisa izateko eskubidea betetzeko. Horrek izan behar du autodeterminazioaren benetako zentzua, ez nahitaez haustura ikuspegitik egina, baizik eta herri bat eraikiz bere erakundeak eratu eta antolatzeko dituen, ahalmen hori kanpotik aitortuz eta barrutik onartuz».

Zer esanik ez, politikaz harago-koa izan da Setienek ekarria. Diktadura ostean herri bat geneukan eraikitzekeo, eta esango nuke, Donostiako Gotzain bezala, elizbarrutiari bere onena atera ziola. Justizia sozialarekiko kontzientzia bizia zeukan, bai lurraldeko beharrei erantzutekeo, drogomenpekotasunaren arazoei aurre egitekeo, munduko herri pobreekiko elkartasuna gauzatzeko eta abar.

Setienek, manipulazioa, iraina, eta gezurra jasan zituen. Ez zen abertzaletasunarekin lerratu baina baten batzuei molestatu egiten zien haren egia: «bakeak prezioa duela» esatea ez zioten barkatu herri honetatik kanpoko hainbat interesek, ez elizan ez arlo politikoan eta mediatikoan.

Setienek maite zuen egokitu zitzaizkion herria eta elizbarrutia, eta gipuzkoar askok berdin ia 40 urtetan egokitu zitzaigun gotzaina, leiala izan zelako, zailtasunean eutsi egin ziolako. Niretzat garbi dago Jose Maria Setien gizon handia izan dela Gipuzkoarako eta Euskal Herriarako, inguru hau hobetzen lagundu duelako. Beraz, nire esker ona Setien gotzain zenari.

Herri aske eta baketuen Egundua Handira arte.